

a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

> Koloreak



- Kolore-kolore

Helburuak

- Koloreak euskaraz izendatzen ikastea.
- Koloreekin jolas egitea.

Prozedura

- Jolasa gelan zein kanpoan egin daiteke.
- Hezitzailea hasiko da eta kolore bat esango du. Umeek kolore hori bilatu eta ukitu egin beharko dute. Norberaren burua eta arropa ezin da ukitu.
- Kolorea aurkitu aurretik, hezitzaileak umeren bat ukitzen badu, honen txanda izango da.
- Ukitutako umeak, esango du oraingoan, kolorea eta bere helburua beste bat harrapatzea izango da.
- Umeak aspertu arte jolas egin daiteke.